

Eraikuntzako langileen grebak jarraipen zabala

Gipuzkoako eraikuntza alorreko langileak greba mugagabea dira duela bi astetik, 2004-2005eko lan hitzarmenari buruz Adegik patronalarekin akordiorik lortu ez dutelako. Greba hilaren 10ean hasi zen. ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek deituta, eta jarraipena oso zabala da. CCOOk dioenez, Donostian enpresen %98ak jarraitu du deialdia —Gipuzkoan %95ak—. LABen arabera, grebarekiko atxikimendua %100ekoa da bai Donostian, bai Gipuzkoan.

Sindikatuak soldata %4 igotzea, bi urteren buruan lanaldia 32 ordu murritzeta eta enpresa nagusiek azpikontratutako langileen ardura hartzea nahi dute, besteak beste. Hala ere, negoziazioa etenda dago.



"Adegik gorrarena egiten du, nahiz eta gurea azken 25 urteetako grebarik indartsuena den", dio Carlos Gonzalez CCOOko kideak. LABeko ordezkari Juantxo Latasak esan digu-


nez, *"patronalak zenbait gauza ezin direla negoziatu dio: esate baterako, enpresa nagusiek azpikontratutako langileen ardura hartzea"*.

Bien bitartean, Adegik lau urterako lan hitzarmena sinatzea eta soldata %3,12 igotzea eskaini die langileei. Adegik negoziatzeko asmoa duela dio, baina ez une honetan mahai gainean dauden eskaerekin: *"Behar adina eutsiko diogu, sindikatuek eskaerak aldatzen ez dituzten bitartean"*.

Negoziazioa etenda dagoenez, sindikatuek mobilizazioak indartzea erabaki dute. Ostiralero manifestazioa egingo dute. Anoetako estadiotik 12.000etan abiatuta, eta egunero kontzentrazioak egingo dituzte leku eta ordu berean.

Urdanetako postetxea zabaltzear

Urdaneta kaleko postetxeko zaharberitze lanak bukatzear dira. Bi urtetan itxita egon eta gero, azkenean ekainean zabalduko dute posta zerbitzuaren Donostiako egoitza nagusia. Hala ere, irekitze data zehazteke dago oraindik. Eraikina 1907tik 1909ra bitartean egin zuten eta lau solairu ditu; 6.600 metro karratu, guztira. Lehen bezala, beheko solairuan herritarrentzako zerbitzu guztiak izango dira, eta 50 bat langile ariko dira zeregin horretan. Posta enpresako arduradunek adierazi dute-nez, zaharberitzearen ondoren, eraikina argitsuagoa eta zabalagoa izango da.



Gazteentzako etxebizitzak Intxaurrondon

Eusko Jaurlaritzak babes ofizialeko 80 etxebizitza egingo ditu gazteentzat Intxaurrondon, Barkaiztegi hiribideko lursail batean, Txara I izeneko eraikinetik gertu. Dena dela, egitasmoa erabat zehazteke dago oraindik. Jorge Letamendia Hirigintza zinegotziak adierazi duenez, hasieran Udalak hartu nahi zuen etxebizitzak egitearen ardura, baina azkenean, Eusko Jaurlaritzak eraiki eta finantziatuko ditu. Aurreikusitakoaren arabera, 80 etxebizitzak eraikin bakar batean egingo dituzte.

Etxeak botako dituzte laster

Loiolako zaharberitze lanak hastear dira. Izan ere, Udalak adierazi duenez, egun gutxi barru zenbait eraikin botatzen hasiko dira. Zehatz mehatz, Amerikanoena, Senperena etxea, Aralar Mendiaren kaleko 52. zenbakiko etxea eta Loiolatarra kaleko Ibai Eder eraitsiko dituzte. Jakina denez, Udalak 125 etxebizitza egingo ditu —29 babes ofizialekoak— etxe hauek dauden tokian.

Horrez gain, beste zenbait berrikuntza ere egingo dituzte Loiolan: parkea handitu eta Urumea ibaian pasealeku bat egin, besteak beste.

